

Euskalingua 20

Aurkezpena

Irakurle hori,

Euskalingua 20k hizkuntzalaritzako, literaturako eta ahotsaren teknologien alorreko bost artikulu eskaintzen ditu. Hasteko, EUDIA taldekoek *Euskararen bariazio sintaktikoaz lehen datuak* deritzon dialektologiako artikulua dakarre. Bigarren, Angel Larrea eta Juan Rekaldek *Arratiako berbetearen gitxieneko hiztegia*, urteak dala hasitako Arratiako euskerearen biltze-lan deskriptiboaren jarraipena. Hirugarren, Manu Ormazabalek egindako Ken Waliboraren *Ameriketako ametsa* lan literarioaren itzulpena dago irakurgarri. Azkenik, Aholab Ingeniari taldeak ahotsaren prozesamendurako lanetako bi artikulu dakar; bata, *Ahots sintesirako HNM ereduan oinarritutako vocoder hobetua* eta bestea, *TTS Ikuspegi Hibrido bat Modulu Akustiko eta Prosodikoentzat*.

EUDIA taldeko Lorea Unamuno, Ariane Ensunza, Jose Luis Ormaetxea, Aitor Iglesias, eta Gotzon Aurrekoetxeak *Euskararen bariazio sintaktikoaz lehen datuak* izeneko artikulua aurkezten dabe; inkestatuen ixaerari dagokionez, adinez “helduen belaunaldia” etiketaz markatutako hiztunak aukeratu dira inkestei erantzuteko eta, eremuari dagokionez, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako hirurogeita hamasei herritako euskal hiztunak kontuan izanda jaso dabe bariazio sintaktikoaren mapa osatzeko informazioa. Mapa sintaktiko hau euskalkien araberrako lehen sailkapen sintaktikoa da eta euskalkien deskripzioari eta sailkapenari zehaztasuna dakartzo.

Angel Larrea eta Juan Rekaldek *Geure Berbategie* proiektuaren barruan sortutako artikulua dakarre Euskalingua 20ra, *Arratiako berbetearen gitxieneko hiztegia* izenagaz eta eurek dinoenez, 2010ean argitaratutako *Arratia inguruko Hiztegiaren* 25.000 sarreretatik ataratako aukeraketa da honako hau. Arratiako euskararen aldaketa lexikoaz konturatuta, hango euskararen eragina izateko helburua azaltzen dabe egileek, helburu didaktikoa, beraz, ez irakaskuntzara mugatua. Horretarako lexiko-aldaketaren gaitzesortze-prozesuak deskribatzen ditue hasieran, ondoren lexiko arlo promozionagarri batzuk finkatzen ditue, esate baterako, koloreak eta gaixotasunak, eta, azkenik, hiztegia bera.

Manu Ormazabalek Ken Waliboraren *Ameriketako ametsa* ipuinaren itzulpena eskaintzen dau. Wiskonsin-Madisonen Unibertsitatean Afrikako Hizkuntzen eta Literaturaren fakultateko Walibora irakasleak ume eta gazteen literatura arloko liburuak argitaratu ditu eta horreen artean dago *Ndoto ya Amerika* ipuina, 2001ean argitaratua. Manu Ormazabalek euskarara itzuli dau ipuin hau eta, Kenyan kokatuta, herriko eta hiriko paisaia, hango gizartearen egitura eta giza harremanetara hurreratzeko aukera eskaini dau. Ahozko kontamolde tradizioaletik hurraren, hizkuntza bizian, gertakizunen segidak irakurlea bidean aurrera eroaten dau, Isayaren bizipenetan aurrera, bidaia iniziatikoa eraginez.

Aholab ingeniari taldeko D. Erro, I. Sainz, E. Navas, I. Hernáez, J. Sánchez, I. Saratxaga, I. Odriozolak *Ahots-sintesirako HNM ereduan oinarritutako vocoder hobetua* artikuluan ahotsa sintetizatzeke sistema estatistiko-parametrikoein emaitzen hobekuntza-jarduera baten barri dakarre. Esperimentazioan hiru vocoderretan oinarritutako ahots sintetikoa sortu da, eta aurreko bertsioen emaitzak apur bat hobetzea lortu, beraz, kalitate handiko vocoderrak eraikitzeke baliabide izan daiteke.

Aholab ingeniari taldeko Iñaki Sainz, Daniel Erro, Eva Navas eta Inma Hernáezek ahots sintetikoa hobetzeke aurrerapausu baten barri emoten dabe *TTS Ikuspegi Hibrido bat Modulu Akustiko eta Prosodikoentzat* artikuluan, hain zuzen, Testu Ahots Bihurgailu (TTS) sistema eta sistema estatistiko-parametrikoein ezagutzen denaren konbinaziotik sortzen dan IH (Ikuspegi Hibridoa) deritzon sistema. Aurkezten dituen datuen araberrera, sistema biok konbinatuta, TTSren naturaltasuna eta sistema estatistiko-parametrikoein kalitate trinkoa batzea lortu da, naturaltasuna irabaziz, zarata eta distorsioa murriztuz.

Euskalingua 20ko artikuluoek gogoko izango jatuzalakoan, agurtzen zaitut.

Aulesti, 2012ko apirilak 30

Maribi Unamuno

Editorea

victoria.unamuno@ehu.es